# EGUZKIAREN BIURGUNEA.

DONE AGUSTIÑ-EN LATRAN-GO APAIZ-NAGUSI ARAUTARREN DONEPILLAKO AITA IRAKASLA ON PIO MARÍA MORTARA JAUN BEAKURTAGARRIARI.

Gau illunaren estalki beltzak
Garaituaz goizaldean,
Agertu zara, arpegi ederra,
Gure mendien gañean.
Goratzen zuaz geldi geldirik
Gora, goratzen goraño
Alik, ostera, baña poliki
Makurtutzen zeradeño.
Odei gorrantz bat zearrantzean
Etziñik dago or bean
Zure oia da, ori, eguzkia,
Itsasoaren gañean.
Bazuaz beti, zure ondotik
Baita jarraitzen gu ere:
Baña¡nagiak! zu joan eta
Atzean gera gerade.
Ez degu zertaz ikaraturik,
Berritik bigar goizean
Erregea au beti bezela
Azalen da sortaldean.
Bizitza ontako eunkienak
Onlakoseak dirade;
«Oranche jauzi nachiok bada....
Ta orduan pizten gerade».

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.